

27. EUSKAL DENDA

AURKEZPENA

Euskal Denda indarberrituta itzuliko da Durangora, artisau-sektorea inoiz baino biziago dagoela erakusteko asmoz. Aurten, 27. edizio honetan, artisauen kopurua handitu egingo da 54ra iritsiz, aurrekoetan baino hiru gehiago izango dira. Ohikoa den bezala, abenduko zubian, urteko azken hilabetearen 6tik 10era, Euskal Dendak Bizkaiko hiribildua bihurtzen den hiri kulturaleko jarduerak osatuko ditu egun hauetan, eta artisau produktu bakar eta originala maite dutenak bilduko ditu berriro. Artisauen topaketa hau Arbaso Euskal Herriko Artisautza Tradizionalaren Sustapenerako Elkartearen esku egongo da berriro ere. Elkarreak, beti bezala, bertako produktuen aldeko apustu sutsua egingo du, eskuz eginga eta kalitatezkoa.

Aurrekoan aipatu bezala, Durangoko azokako plazan 54 artisau izango dira guztira. Kopuru horrek % 10 handitzen du topaketan parte hartuko duten profesionalen kopurua. Arbasok aitortu duenez, *“eskaintza handitzeko benetako ahalegina egin da. Horretarako espazioa birbanatu egin dugu, espezialisten presentzia ahalbidetzeko, inoiz iritsi ez garen ratoria”*, azaldu dute. Elkarre honen ustez *“hau da gure erreferentziazko azoka, urteko garrantzitsuena da, horregatik, parte hartzeko eskaera ugari jasotzen ditugu. Badakigu nolako garrantzia duen artisauen eta ikusleen arteko topaketa mota horrek, eta aurten parte-hartzaile gehiago egon daitezen ahalegin berezia egin dugu”*.

Jakina, zenbakiei dagokienez, dagoeneko tradizionala den gune hau euskal lurralde guztietatik etorritako profesionalen sorkuntza luzarorako agertoki izango da. Edizio honetan Bizkaiko sektoreak izango du ordezkaritza handiena, guztizkoaren % 62 zenbatuta. Baina ez dira faltako Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurditik etorriko direnak. Bestalde, 54 parte-hartzaileetatik 15 Durangon aurkeztu dira lehen aldiz; horietako batzuk sortu berriak ere badira, hori dela eta, *“bizi garen une gogor hauetan sekulako albistea da, oraindik artisautzan aritu nahi duten profesionalen sinadurak sortzea, baina zorionez, ilusioa ez zaigu falta”* adierazi dute hitzorduaren arduradunek.

HELBURUAK

Euskal Dendaren helburua artisautzaren sustapena zabaltzea eta, era berean, artisautzaren merkaturatzea eta sakontzea da, Euskal Herrian egin izanaren zigiluarekin. Hori dela eta, azoka hau aukera paregabea izaten da artisautza lanak zuzenean ezagutzeko. Are gehiago, profesional horiek ezagutzeko parada ederra izaten da. Izan ere, Euskal Herriko artisautzak mugak gainditzeko kalitatea badu, eta Durangon ikusteko gai izango da publikoa.

Era honetan, Arbaso bere apustu aitzindariagatik nabarmentzen da. Elkarte honek antzinako ofizioak balioesten ditu, izan ere, bere baitan dituzten artisauek beti landutako objektuak garatzen dituzte, fabrikazioaren ikuspuntutik, hau da, lanak eta artisautzako prozesuak ahalik eta gehien errespetatuz diseinatuak.

Hala eta guztiz ere, askok baino askok berrikuntzak egiten dituzte eta orainean eta etorkizunean bilatzen dituzte beren inspirazio-iturriak. Horregatik guztiagatik, gaur egun, artisau izatea garaikidetasunaren sinonimoa da, eta beste behin ere agerian jarriko da edizio honetan. Horretan guztian eragina du XXI. mendeko artisauek berrikuntzaren, diseinua, iraunkortasuna, teknika zaharrak menderatzea, bilaketarekin uztartuz. Apustu pertsonal horiei esker, eta profesional asko benetako aitzindari bihurtu dira.

Artisautza bizitzeko modu gisa uler daiteke, baita herrialdeko kultura-balioak ere, garapen ekonomikoari egiten dioten ekarpena ahaztu gabe, eta lanbideen mantentzean duen balioa; izan ere, artisauengatik ez balitz, ez lukete denbora asko biziraungo.

Esperientzia honi esker, bisitariak konprobatu ahalko du bertan antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira.

EUSKAL DENDAREN HISTORIKOA

Euskal Dendak, beste ezein sektorek bezala, egungo krisi ekonomiko eta soziala pairatu eta pairatzen du. Halaber, azokara joaten diren bisitarien kopuruari dagokionez, egun kopurua aldatu egiten da. Azken edizioan, bost eguneko azokarekin, 33.171 bisitari izan ziren. Zenbaki horiekin, Durangoko artisautzarekin egindako hitzordua pandemia aurreko garaietara itzuli zen. Esan behar da zenbaki objektiboa dela, bertaratutako bakoitza sarrerako atean zenbatzen baita, plaza mugatuak dituen espazio bati dagokion bezala.

Ekitaldiaren antolatzaileen iritziz, Euskal Denda bezalako azoka berezi batera bertaratzea *“balio erantsia da, argi eta garbi uzten baitu bertara hurbiltzen direnek kontzientzia osoz egiten dutela eta bertan parte hartzen duten artisauekin gozatu eta ikasi nahi dutela”*. Euskal Dendako publikoa, beraz, publiko fidela da, *“azoka hau bisitatzen duenean nora eta zertara doan badakienean”*.

Datozkigun egunei erreparatuta, aurtengo ediziorako aurreikuspena aurreko urteetakoaren antzekoa da, bai bisitariari, bai salmentei dagokienez. Horrek esan nahi du sektorearentzako bultzada bat dela, krisi garai hauetan. Kontuan izan behar da, halaber, Gabonak gertu daudela eta haren efektua sentituko dela.

PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK

27a. Euskal Dendak euskal lurralde guztietako ordezkariak izango ditu. Guztira 54 artisau etorriko dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroatik, eta horietatik 15 izango dira berriak, hau da, artista berrien % 27. Horrek, beti bezala, balio erantsia emango dio azokari.

Lurraldeka, beste behin ere Bizkaia izango da ordezkari gehien izango duena, guztira 28 izango dira. Gipuzkoarren presentzia igoko da, lurralde horretako 14 artisauetara iritsiz. Arabatik 2 iritsiko dira eta Nafarroako foru lurraldetik 8. Ipar Euskal Herritik artisau bakarra etorriko da, Lapurditik hain zuzen ere.

Durungaldeko artisauak ere bertan egongo dira, euskualdeko sei profesionalak izango dira, hain zuzen ere. Guztiak ere topaketa honen klasiko handiak, aldi berean, berrikuntza ugari izango dira tailer berriekin. Ez da faltako **Eneko Unzalu** bitxigilea, plaza honetan ezinbesteko hitzordua duena. **Gorakat** elorriarrak ere ez du topaketa hau galdu nahi, **Restaurarte** Euskal Dendako klasikoa. Euskal Dendan ere **CY Jantziak**, **Veletta** eta **Amalur** sinadurak izango dira, azken hiru horiek berri-berriak dira Durangoko plazan.

Sektoreka, ehungintzari lotutako artisauak izango dira nagusi, eta 11ra iritsiko dira. Horien artean denetarik aurkitu ahal izango da; osagarrietan, moda propioan edo mota guztietako beroki jantzietan aritzen/ariko direnak. Gabonak hain hurbil izanez, ezin izango dira falta bitxigintza, imitaziozko bitxiak, zeramika, zura edo kosmetika bezalako ohiko segmentuak, gremio bakoitzeko lau artisau izango ditu.

Gune honetan bilduko diren beste gremioetako profesionalak izango dira, hala nola: larrugintza (3) panpinagintza (1), jostailuak (1), euskal kirola (1), zapatagintza (1), makramea (1), serigrafia (1), lore lehorra (1), feltroa (2), kakorratza (1), zaharberritzea (1), landare-zuntzak (1), estanpazioa (1), txotxongiloak (1) eta enkoadernaketa (1).

Nekazaritzako elikagaien sektoreari, halaber, leku garrantzitsua egingo zaio aurtengo Euskal Dendan, izan ere, bere arloko onenetarikoak izango dira. Hortaz, leku berezia izango dute **Gorrotxategiren** txokolateak, **Garrarteren** garrapinatuak, **Lorez Loreren** eztiak, **Katealderen** pateak edo **Ziorregiko** gaztak.

NOBEDADEAK

Lehengo aldiz etorriko diren artisauak hurrengo hauxek dira:

ARABA: Ordezkarari arabar berri bakarra:

EGURRA UKITZEN. Zura: Zur noblearekin pieza originalak sortzen dituzte. Zurezko pieza bakoitza arretaz aukeratzen dute, forma desberdinak sortzeko, eta, aldi berean, erretxinarekin eta hainbat kolore-tindu nahasten dituzte, pieza bakar eta eksklusiboak lortzeko. Gasteizko lantegian denetarako lekua eta denbora dago, baita proiektu pertsonalizatuetarako ere.

BIZKAIA: Orotara zortzi ordezkari bizkaitar berriak izango dira:

LAPRETADA. Zeramika: Haren tailerrean, Susana López de Munainek lortzen du pieza karismatikoek eguneko edozein une aparteko bihurtzea. Izan ere, barnekoaren, ederraren eta errepikaezinen beharra eta atsegina etxe bakoitzera hurbiltzeko asmoz. Artisau-baxerak eskuz modelatzeko tekniken bidez diseinatuta eta sortuta daude, forma organikoak eta irregularrak sortuz, jasangarritasunari eta tokiko ekoizpenari balioa emanaz. Pieza guztiak eskuz margotuta eta sinatuta daude.

WÜL. Feltroa: Artista eta ikertzailea. Haren erakustokiak ez du inor axolagabe uzten. Gustu bikainarekin, Flor Veronek bizitzarekin harmonian egindako pieza paregabeen bilduman barneratuko gaitu, estanpazio botanikoari eta kutsu naturalei esker. Poltsak eta diru-zorroak dira bere objektu fetitxeak, baina ez dira faltako dekorazioari zein osagarriei lotutako beste elementu batzuk. Bere lanak bikainak dira.

ZUR BERRI. Egurra: Ezin perfektuagoak, horrelakoak dira Jorge García langile trebe honen lanak. Egurrean du inspirazio-iturria, pazientzia eta mimo infinituaz landuak, non denbora neurtzen ez den eta perfekzioa bilatzea besterik ez duen kontatzen. Sortzaile bizkaitar honen eskuetatik ateratzen diren objektuak izugarrikoak dira, klaseari eta kalitateari esker.

FLOR DE AGUITA. Makrame: Nuria Jaberrek korapiloaren artea azalduko digu, eta horrekin batera beste lurralde batzuk gogora ekarriko dizkigu. Algortan duen tailerretik, haren marka etiko eta jasangarria munduratzeko da, mineral sendatzaileak dituzten artisau-bitxigintzako bildumen, etxea apaintzeko objektuen eta eskuz egindako osagarri pertsonalen bitartez.

CY JANTZIAK. Ehungintza: Patroi ezin hobeak dituzten kaikuak, festarako baserritar jantziak, doluzkoak edo dantza egitekoak, marra bat falta ez zaien prakak, jantzi bakarreko alkandora ederrak. CY Jantziak euskal janzkera tradizionalekin lotutako piezarik eskusiboenak egi bihurtzen dituzte. Baina atzean ez geratzeko eta merkatu-kuota ez galtzeko, guztiarekin ere ausartzen dira, eta, eskusibotasunez diseinatuta, neurrira lan ere egiten baitute.

VELETTA. Ehungintza: Durangotik iritsitako nobedadea, ardatz nagusi batekin: moda garrantzitsua da, bai, baina inoiz ez zen premiazkoa izan. Horregatik, jantzigintza-prozesuaren zati bakoitzak presa edo berehalakotasunarekin hautsi ezin direla argi du. Velettan prozesu guztiaz gozatzen dute. Ehunak aukeratzetik hasi eta produktu bakoitzari izena jarri arte. Toteak eta motxilak haren ikurrak dira, baina gauza gehiago ikusi ahal izango ditugu haren erakustokian.

BATASDECOLEGIOORIGINALES. Ehungintza: Argi dago eskolara joateko haren mantalak dibertigarriak, sofistikuak, irudimentsuak direla. Izan ere, Rebeca Garcíaren irudikoz eskolara joateak ez du tristuraren sinonimoa izan behar, guztiz kontrakoa, eta horregatik jarrera eta nola joan funtsezkoa da. Eskolara jantzi eder horiekin joateak umore onez jarriko gaitu. Baina mantalak bakarrik ez, bere erakustokian merienda poltsak eta originalak diren beste osagarri batzuk ikusgai izango ditugu.

AMALUR. Ehungintza: Makrame korapiloen artean jaiotako, Ainhoa Gangoitiak moda kontzientean sakontzen du, su motelean sortua, originaltasunari, irudimenari, izaera pertsonal nabarmenari eta lurra erreferentetzat duenari esker aurrera eginez. Durangaldean ez zaio inspiraziorako tokirik falta irudimenari gorputza eta oihalak jartzen dizkion neska gazte honi. Arropa ezberdina, eroso eta erabat moldakorra.

GIPUZKOA: Gipuzkoako nobedadeak:

MALICIA. Ehungintza: Oihalaren bilaketatik abiatuta, kapelak, bandak eta bururako beste osagarri batzuk diseinatu eta amaitzeko, horrela igarotzen dira Alicia de Miguelen egunak, Euskal Dendara lehen aldiz iristen denak, gure janzkerari kolore-nota jarriko dion bilduma batekin. Gainera, nahi duzuna ez badu, zure ametsa egi bihurtuko du.

IMPOSSIBLE BLACK. Ehungintza: Jantzien diseinatzailea eta modaren industriak ingurumenean duen eraginez kezkatuta dagoen ehungintzako artista, Cynthia Pazmiño de la Arada artista polifazetikoa da, zuntzei kolorea eman nahi diena tindu naturalen bidez, eta eman zaion publiko baten objektu desiratu bihurtzen dituena. Hura ezagutzea kolorean eta ilusioaren munduan barneratzea da.

KROMOSOMA TAILERRA. Jostailuak: Gabonak gertu dugu, hori dela eta, Kromosoma izan daiteke etxean haurrak dituztenen galeraren erakusle. Irudimena sustatzen duten jolasak, momentuak familian edo lagunekin partekatzeo aukera ematen dutenak, partaidetzazko jolasa bultzatuz. Kromosoman pantailetatik ihes egiten dute antzinako jolas eta jostailuetan sakontzeko. Joko horiek kalea jolasgune gisa berreskuratzen dute eta une horiek guztion artean partekatzea errazten dute.

POTT KERAMIKA. Zeramika: Bi emakume, Jone Urain eta Maite Salutregi, inkonformistak, tematiak, sentiberak... horrela definitzen dute haien burua. Era horretan, lokatzaren bidez irudimenari forma ematen saiatzen dira. Zeramika da eguneroko plazerrez gozatzeko aztarna duten piezak sortzeko duen modua. Bere tailerrean, Itsason, naturaz eta konpainia onez inguraturik, aurkitzen dute inspirazio eta sorkuntza lekua eta bertatik ateratzen dira mundura bere lan delikatuak.

LUMA. Ehungintza: Luma diseinu marka euskalduna, Bogolan oihalarekin eskuz egindako osagarri eta denboraz kanpoko sorkuntzen bidez bidezko merkataritza bultzatzen duena. Kulturen arteko lotura eta pertsonetikiko eta inguruarekiko errespetua sustatzen duten produktuak, mundu hobea sortzeko gai diren gizarte-ekimen inklusiboen proiektu etiko inspiratzailea bultzatzen dutenak.

NAFARROA: Nafarroak artisau berri bat izango du.

IXIART. Zura: Itxiar Mielgok 20 urte baino gehiago daramatza zurarekin lotuta. Hasieran, pieza tradizionalak lantzen zituen, belaunaldiz belaunaldi transmititutako ezagutzaren ondorioz. Pixkana-pixkana, pieza garaikideenetara hurbildu da. Gauzak horrela, bere maxima lan bakoitzean iraulitako arreta eta mimoa da, bakarra izan dadin eta, aldi berean, istorio bat zabal dezan.

ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.

Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.

Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.

Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.

Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta.

FITXA TEKNIKA

EDIZIOA: 27.a

DATA: abenduaren 6tik 10era

ORDUTEGIA: Goiza 11:00 - 14:30
Arratsaldea 16:30 - 20:30
Igandea 10 20:00ak arte

ERAKUSTOKIAK: 54

LURRALDEKA

Araba 3

Bizkaia 28

Durangaldea 6 **CY Jantziak, Eneko bitxiak, Veletta, Gorakat, Amalur, Restaurarte**

Gipuzkoa 14

Lapurdi 1

Nafarroa 7

SEKTOREKA

Nekazaritzako elikagaiak 5

Ehuna 11

Zeramika 4

Kosmetika 4

Lore lehorrak 1

Landare-zuntzak 1

Feltro 2

Panpigintza 1

Zura 4

Euskal Kirola 1

Serigrafia 1

Makrame 1

Larrua 3

Zapatagintza 1

Bitxigintza 4

Jostailuak 1

Imitaziozko bitxigintza 4

Koadernaketa 1

Estanpazioa 1

Kakorraz-lana 1

Zaharberritzea 1

Txotxongiloak 1

LEKUA: Durangoko udal merkatu plaza. (1.600 m2)

BABESLERIK NAGUSIENA: Bizkaiko Foru Aldundia

BABESLEAK: Durangoko Udala

Durangoko Turismoa

DEIA

GARA

ONDA VASCA

ANBOTO

INTERNETEKO HEDAPENA: www.euskaldenda.info
euskaldenda.blogspot.com/
www.arbaso.com

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA: prentsa@arbaso.com
607 86 32 24